

Seme-alabek aita edo ama eta/edo beste senide batzuen kontra indarkeria erabiltzen duteneko familiei laguntzen zaie programa honen bidez. Seme-alabek, boterea eta kontrola irabazteko, haien aurkako egintza kaltegarriak egiten dituzte, hala nola:

- **Abusu fisikoa:** kolpeak, bultzadak, gauzak botatzea, etab.
- **Abusu psikologiokoa:** irainak, mehatxuak, laidoak, ihesak, amari, aitari edo beren buruari min egiteko mehatxuak, etab.
- **Abusu ekonomikoa:** lapurretan ibiltzea edo gauzak baimenik gabe hartzea, etxean edo ama edo aitaren gauzetan kalteak eragitea eta amak edo aitak lortu ezin dituzten gauzak eskatzea.

Programa honek amari edo aitari erasotzen dioten nerabeen indarkeriari heltzen dio, arazoaren aspian dagoen genero-ikuspegi osoa hartuz.

Programa **doakoa** da, eta **Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko** Emakume eta Familien Zerbitzuaren menpe dago.

ZER ESKEITZEN DU?

- **Laguntza psikoterapeutikoa:** familia-psikoterapia edo norbanakoa
- **Gizarte eta hezkuntza arloetako laguntza:** nerabe eta familiarekiko harreman zuzenean
- Kasu bakoitzaren ezaugarriei egokitutako esku-hartzea (norbanakoa, familia, taldea, esku-hartze sozio-komunitarioa)



NORENTZAT DA?

- Bizkaian bizi diren familientzat, **10 eta 21 urte bitarteko** seme-alabak badituzte, seme-alaba horiek aita edo ama eta/edo beste senide batzuen kontra indarkeria erabiltzen badute eta bizi duten gatazka-egoera konpontzeko laguntza eskatu badute.
- Programaren bidez, umea edo nerabea jatorrizko familiarekin bizi den kasuetan zein familia aldi baterako edo modu iraunkorrean banatu den kasuetan emango da laguntza.

NOLA JASO PROGRAMAREN LAGUNTZA?

Eskaerak, gizarte zerbitzuen bidez, programara bideratzeko erakundeen bidez, edo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakume eta Familien Zerbitzuan zuzenean aurkeztu daitezke.

- Justizia-erakundeek, gizarte zerbitzuek eta bestelako entitate edo erakundeek (modulu psikosozialak, osasun-zentroak, etab.) bideratu ahal izango dituzte kasuak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Emakume eta Familien Zerbitzuak eta Umeen Zerbitzuak ebaluatutako kasuak.

ARGIBIDE GEHIAGO:

BFAko Emakume eta Familien Zerbitzua:
T: 94 406 72 95 • F: 94 608 29 75
www.bizkaia.net (Gizarte Ekintza Saila, Emakume eta Familien Zerbitzua)

Erakunde adjudikazioduna (Berritu hezkuntza elkartea):
T: 94 447 91 51 • F: 94 447 75 69



INTERVENCIÓN
CON ADOLESCENTES
AGRESORES
EN LA FAMILIA